

# MIKEL URDANGARIN

## D I S K O G R A F I A




Zuhaitz gazte baten modura, berotegian hazten aritu den lana dugu Hartzetan (GH022), 1997an autoprodukzio gisa argitara eman zenez geroztik. Bi urte geroago, Gaztelupeko Hotsetara “aldatu” da, jatorrizko diseinuari bere horretan eutsiz.

“Sustrai garbiko zuhaitza” da, konposizio samurrak dituena, figuratiboak baina aldi berean aberatsak beren zurruntasunean. Abestiek ahots biluzia dute oinarri, eta gitarra eta celloa beste laguntzarik ez dute. Hitzak Iñaki Aurrekoetxearenak eta Mikel Urdangarinenak dira.



Lehen lanak lortutako arrakastaren ondoren, 1998. urtean Badira Hiru Aste (GH011) argitaratu zen. Testu gehienak Mikelenak dira, baina Iñaki Aurrekoetxea eta Arkaitz Estiballesen ekarpenak ere ageri dira bertan. Musikaren alorrean, hainbat laguntza jasoko ditu: Jonathan Bews biolin-jole eskoziarra, Luis Caminoren perkutsioak, Pello Ramirezen celloa, Iñaki Zabaletaren pianoa, Josu Zabalaren akordeoia, eta abar.



*Espilue* lanak (GH032 – 2000), berriz, euskal musikagintzako kantautorerik interesgarrienen mailara goratuko du Mikel. Freskotasunik batere galdu gabe, askoz ere landuagoa eta konplexuagoa da disko hau, eta soinu berrien bide berriak zabaltzen dizkigu, baina betiere bere estilo bereziari eutsiz.

Laguntzaile gisa aritu diren musikari ugarien artean, berriro ere, Jonathan Bews, Pello Ramirez eta Josu Zabala aipatu behar ditugu, baina beste batzuk ere ageri zaizkigu, hala nola Bingen Mendizabal, Pablo Tato edo Rogelio Botanz, besteak beste.

Lan berri honetan argitaratzen diren testuetako batzuk Kirmen Uriberenak eta Igor Elortzarenak dira.




*Bar Puerto* (GH042 - 2001) lanean, aldiz, desagertzeaz dagoen bere jaioterrira itzultzen den gizon baten historia kontatzen zaigu. Kirmen Uribe, Bingen Mendizabal eta Mikel Urdangarinen testuetan oinarriturik, interpretazio berri bat egiten da, literatura, musika eta bideoa ikuskizun berri batean uztartuz.

Proiektu honetan folk, jazz edo rockaren mundutik datozen musikariek hartu dute parte, eta halaber, kanta tradizionalak eta berritasun handikoak orain arte ez bezala elkartzen dira.



*Heldu Artean* lanean (GH049 - 2002) Mikelek bere alderdirik hiritarrena erakusten digu, baina folk ildotik urrundu gabe. Lan pertsonalagoa da, eta kanta guztiak, hamabi guztira, **Kirmen Uribe**k idatzitako bat kenduta, berak idatziak dira. Esan genezake disko irekia, freskoa eta naturala dela, lehen probak errespetatuz eta soinu gordin eta benetako batez jantziak.



*Lagun Artean* lanarekin (GH DVD01 - 2003) Mikelek musikaren muina zertan datzan erakutsi nahi izan digu, bere entzuleriarekin harreman estuan emanaldi beroa eta etxekoa eskainiz. Bere lehen DVD da, eta bertan, elkarrizketak, diskoei buruzko informazioa eta, jakina, **Mikel Urdangarin**en karrera diskografikoan zehar egindako ibilbidearen berri ematen diguten hamahiru gai ere badatoz. Horretarako, denbora horretan aldamenean izan dituen hainbat musikariren laguntza jaso du.



Hainbat diziplina artistikoren uztartze harmoniatsua den disko-liburu honetan, bost sortzaile garaikide topatzen ditugu, euskal kulturaren arlo desberdinetan lanean ari direnak: poesian, kantagintzan, zineman, rock alternatiboan eta ilustrazioan: **Kirmen Uribe**, **Mikel Urdangarin**, **Bingen Mendizabal**, **Rafa Rueda** eta **Mikel Valverde**. *Zaharregia, txikiagia agian* (GH063 - 2003) lana, New Yorkeko kritikaren iritziz, urteko bost disko-liburu interesgarrienen artean dago, **Lou Reed** edo **Leonard Cohen**ekin batera, besteak beste.



Itxurazko atsedenaldi baten ondoren, zeren ez baitio sekula lan egiteari utzi eta hainbat proiektu desberdinetan parte hartu baitu, *Dana* argitaratu du orain (Elkar KD707 - 2005), bere diskorik eklektiko eta elektrikoena. **Bingen Mendizabal**, **Rafa Rueda**, **Pablo Tato** eta **Fernando Saiela** lagun izan dituelarik, **Pello Ramirez** eta **Koldo Uriarteren** ekarpenak ere jaso ditu, baita **Mikel F. Krutziagaren** ko-produkzioa eta **Kirmen Uriberen** testuak bi abestitan.



**Mikel Urdangarin** (Zornotza, 1971) **BERE** disko berria besapean duela, argi erakutsiz heldutasuna, erotasuna eta arriskua ez direla hitz kontraesankorrak. Lehen, bigarren eta hirugarren pertsonako bizipen berriak kanta bihurtu eta *Anek idatzi dit zutaz* (2007) izeneko diskoan bilduta, berrikuntza ugariko lana osatu du kantautore bizkaitarrak, eta hauxe da hamar urte luzez bizitako ibilbide artistikoaren ondoren benetako heldutasuna lortu duela erakusten duen froga ukaezina: autoekoizpena. **Bingen Mendizabal**, **Rafa Rueda**, **Koldo Uriarte**, **Nika Bitchiasvili** eta **Fernando Saiela** lagun izan dituelarik, **Alex Ruiz de Azua** ekarpenak ere jaso ditu, bai



Mikel Urdangarin (Zornotza, 1971) abeslariaren disko berria urriaren 1ean argitaratuko da. Lan berriaren izenburua “*Zubia*” da eta uztaila hasieran Mikel F. Krutzaga soinu teknikariarekin batera sartu da grabatzera. “*Zubia*” diskoa Mikel Urdangarin musikariaren zortzigarren diskoa izango da. “*Zubia*” diskoaren gorputza soinu etereo, atmosferiko eta sensualez beteta dago. Une gozoek noizbehinka indarra hartzen dute eta intentsitatea agerian ikusten da. Badira pop joerako tarteak ere. Mikel Urdangarinek aurreko diskoa bere kaxa argitaratu zuen, “*Zubia*”, ordea, Baga-Biga diskoetxeak kaleratuko du.